

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Goitia Orueta

*Oñati, Gipuzkoa
(1922-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Araotz auzoko Gerneta baserrian jaio zen 1922an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo berekoa. Zazpi anai-arreba ziren. Zazpi urterekin auzoko eskolan hasi zen. Gerora Gasteizera joan zen gaztelania ikastera eta sukaldari-laguntzaile lanetan aritu zen bertan. Soldadutzan eskiatzen eta eskalatzen ibilia da, Auritz inguruan lehenbizi, geroago Gironan, eta azkenik Bera inguruan. Bizi osoa baserrian egin du eta mutikotatik artzain ibilia da, batez ere Urbia eta Degurixa inguruan. Artzaintzari buruzko hainbat kontu kontatu zituen.

Zintak

ONA-058

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-12
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-059

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-12
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV

ONA-175

- **Proiektua:** Gipuzkoako zuhaizti motzak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre 'Marron', Jose Ramon - Aragon Ruano, Alvaro
- **Data:**
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

ONA-176

- **Proiektua:** Gipuzkoako zuhaizti motzak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre 'Marron', Jose Ramon - Aragon Ruano, Alvaro

- **Data:**
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

Pasarteak

1. Antzinako telefonoa

- **Erref:** ONA-058/002
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gerneta baserrian jaio zen eta bere biziko 86 urteetan soldadutza garaian baino ez da izan etxetik kanpo. Gernetakoek Lurgorrieta baserria zuten auzoko. Abixuak eupadaka pasatzen zituzten batetik bestera; eupadek eta izara zuriak egiten zituzten oraingo telefonoaren lanak.</p>

Transkripzioa

- 86 urte dakot, zazpira noia, sei urte nittuanetik ya zertzuk pasau dien zerbait badakit, ze atrasau bizi giñan lehenao, zenbat adelantau garien, hori danori. Zuek ez dakitzue lehenao konturik, lehenao kontuakin...
- Ez ba, hori jakitzera etorri gara.
- Oin larogei urtekuak ez dakigu, hori fijo.
- Ba larogei urtekuak ba nik lau ta, bost-sei urteko garrengo mutikua ba ibilli itten da hemen ba ardittara eta bestian.
- Zu hemen jaixo ziñan, ezta?
- Bai, soldaduska in neben denporia hemendik aparte, beste darian hemen egon naiz ni. Soldaduskan 34 hillabete esan notsun in gittun ta hareitxek, permisuaikin eta etorten giñan ba iñoiz, bestela hemen. Hemetik Lurgorrittara ba horixe eukitten geben, beziño moduen betik bistan, eta lanian ebitzenien be ba ganauakin ta dana ikusten zan, beharretan ta danera hortxe, hareik gu eta guk hareik. Gero urten ezker auzua dana bistan hartzen geben hortik.
- Ta zeari, Mireneri be galdetu xaot, zuek, klaro, Maña, zuek Gerneta, Lurgorritta nun sartzen da Araotzen, ze auzounatan?
- Bakarra, bakarra, ha auzuan ez zan sartzen, Lurgorrieta, hori bakarra, baserri bakarra.
- Emaztea: Ugaranen sartuko zan.
- Ugaraneaz baleike Ugaraneaz. Ez dot sekula entzun, e? Elortokuakin asko tratauten euen, etxeko zien Elortokuakin Lurgorrittakuak.
- Emaztea: Eskolara etorten ziranian Maria eta Modesta...
- Bazkaitten Elorton.
- Emaztea: Maria nere edadekua zan eta Elorton bazkalketan euein. Ugaran edo Mañan, Mañan igual izango da Lurgorritta.
- Ez dakit ba. Nik Lurgorritta esango neuke ez dala auzuan sartuko.
- Auzotasunian bai.
- Auzotasunian bai, baiña auzua, auzo moduan bakarra, "individual". Ba

hareaz gu izaten giñan bezinua eta eurak guaz, eta hemendik ganauak hola okerrian ikusten bazeben, hemetik llamadia itten gosten, behixak pasau dira holako lekutara, edo artotara bakarren bat edo hola iñoiz. Eta eurak be hemen okerrera sartzen bazan ganauren bat, handik llamadia. Guk bistan ez dakogun terrenua ikusten euein, hareik ez dira akordauko eta hemendik ta telefonua hori zan. Oin mobilla "tta-tta-tta".

- Eta zela itten zeuein llamadia?

- Llamadia eupada gogorra. Eupada gogorra.

- Alaba: gero izara zurixak eta hola.

- Emaztea: gero egunen baterako [...] egon bihar bazeben...

- Baitta, erropia izara zuri bat kontraseiña, zeatik oin etaraten dira gauzak eta orduan be etaraten ziren, ta! Enterauten ziñan horreaz hori izaten zan telefonua. Ta ikusten bazeben izara zurixa jarriko baiezkoa bada, ta, jakiñen gaiñian jarri dau ta martxa, alkarreaz alkatu eta norabaitterako biajia bazan ba "ya está".

2. Ganaduzale txokolate zalea

- **Erref:** ONA-058/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Umetan ez zen neba-arrebak beste joaten eskolara, ganadua zaintzen geratu behar izaten zuelako. Txokolatezale amorratua zen umetan. Baserritarrek lana egiteko ikasitako erak ez zituzten behingoan aldatzen eta honek aurrerapena mugatu egiten zuen.</p>

Transkripzioa

- Bai, lehenao be egoten zan gauza bat ezkiñan, baserrittarra ez zan adelantau berez, iñor. Badakitzu zeatik? Kostunbre bat hartua lanak euren garaittan, bost-sei lagun bai etxe baikotzian, eta lanak gogorrak izaten zien, baiña jentia hala egoten zan, eta hau hola in dogu eta hurringo urtian be hola eta hurringuan be hola, haretxeri segi, erreztasunik pentsau be ez zan itten gerora. Esango dotsut geu hasi giñan pentsauten, halako ni ezkondu eta jarri nintzanian nere andriakin, gurasuak, ba, edade altuan egozen ixa, aurrera, eta hori edade altuori bizi bada bateri etxako bajaitten, e? Aurrera ta aurrera gura dogu danok enda gero umiak etorri zien eta gurian gurasuak be gu hemen eskola ebali gindduein. Hemen egozen eskolak mutikuena eta neskatilliena, eta ba ganauak zainketako geratu bihar ziranian nire senidietan ni izaten nintzan hor kastigauori, ba ni nenguen, bestiok ez zien hainbeste ibiltten ganauokin eta ni nintzan maixuori. Mutiko txikittatik nago ni ganauakin hasitta, ta "gaur geratu dailla Manuel" aittak. Goizian ganauak zainketako geratu, gero asaldian eskolara, eta hola. Gero ardi garaixa etorten zan neguan ardixak etorten zirenien, hareikin be Manuel geratu bihar izaten eben. Eta amandria, nere amandria neuken asko gura nostana amandria, harek. Eta neuk be, egixa esanda, kasi amari baiño gehixao berari gura notsan. Harek "hau gizajuau betik kastigauta baiña", ta ez dakit ta, ni txokolatezalia, txokolate gordin zalia amandriak emunda, amandriak bestiairi ontza erdi emuten baosten

be erdi ez neri, e? Neri beti osua. Eta iñoiz "Amandria badao puska bat?", "Bai, ume, euk(ik)o etxuat ba", ta txokolatia ta ogixa. Neretako janaririk onena txokolatia gordiñik eta ogixaz nik uste dot biziko nintzala besteik barik be. Eta hola be ezin geben etara, ezin giñan aurreratu. Eta gizona extremo baten jarten danian bera fango da lotara, ez dau ingo lo examiñan bat in barik, examiña onduen ohien itten da, hori konprobauta dakot nik. Zuk distraiuta zabitzanian ezin dozu gauza bat estudixau, geratu bihar dozu /bihozu/ geldik, besten entretenimendu barik eta zeure examin hortan sartu bihar dozu, adelantaitteko, e? Ta han pentsauten dan gauziaz gero intentauten dozu aber ondo urteten dan. Baiña orduan lehenao ez zan hori hola, eta esaten dotsu gero miheztu giñanian baserrittan jente gutxi, gu jarri giñanian, bueno, honi frente emun bihar hemen. Umerik ez neukan nik gogorik baserrixan ifintteko. Ezkondu nintzanetik neukan hori, e? Zeatik bizimodu gogorra ezagututa nenguen neria eta honeaz egin bihar xuat / bixuat/ eta jaungoikuari eskerrak osasun fuertekua izan naiz. Eta gero afeziño gogorrekoa, eta billurtu ez lan asko dauela-ta be sasoia neukien. Oin gutxikin billurketan naiz e?

3. Idiekin erdaraz

- **Erref:** ONA-058/004
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Soldadutzan Andoaingo baserritar batengandik ikasi zuen simaurra soroan zabaltzeko era errezagoa. Idiek erdara hobeto ulertzen zutela dio Manuelek.</p>

Transkripzioa

- ... hor Anduaiñen soldau geontzela maniobretara etorri giñan, hamabost egunian illaran Andoiñera. Ta gizon jator bat, han emun oskuein bazkaldu, bazkaittan han emuten oskuen Andoiñen eta gizon jator bat, idi pare ederra, zoragarrixa, kargauta sitsakin ta ekin zan deskargaitten, ta hemen "burdikaria" esaten xako, hareik "jornadia" esaten otsain eta budikara hori hemen pilla baten botaten zan eta han bota eben sei pillatan, bai. Euskaldun mutillak arrimau giñan beana, idi ederrak, ta ño! Idi pare jatorra izango zan, ta bai biharra ere, nire moduko aitona batek. Ta gizon majua eta ikusi neben zela deskargau eben bost tokittan edo seittan. Eta hemen, esan duana, pilla baten bota, gero zabalketako neke gehixao... Mekauen diez! Ez notsan iñori ezebe esan eta hurrungo permisuaikin etorri nintzanien, orduan behixak egozen gurian, lanian ondo ekixein behixak, gorrixak, ixa idixan parian izaten zien hareik behixak. Aittak esan nontan "bixar..." Klaro, hoge egunerako etorri nintzan ta aittak be sitsa etarateko girua euen ta sitsa etaraten ingo ete neben ta "bai". Gertu nenguen neriari heltzeko, ta sartu nintzan eta bera fan zan sorora, ezkiñan bat han garbiketara. Fan naiz burdikariaz eta ekin naiz, deskargau dot eta ganauak tiratu (di)ttut aurrera, deskargau ta aurrera, tiratu ta aurrera, deskargau ta aurrera. Aitta begira behetik. Deskargau neben bueltia in ta hona. Sitsa gertu euen ta aguro kargau neben. Ha sasoiaz orduan, bueno, esnia ta opilla. Atzera aitta begira, "nun botako ete xok horrek?", [...] ta, goragotik,

illaran elegante biejien sei, burdikara haundixa ahal dala kargauta ni goittik behera gertu nenguen fateko be ta, beste seirak be pare-parian. Aitta begira behetik. Eguardira arte in neben etaraten eta ez zebe ezebe esan eta gero atsaldian atzera eta etara nittun gertu egozen sitsak danak. Hurringu egunin fan nintzan zabalketara, ta aitta ixilik euen, ez zebe ezer esan, fan naiz zabalketara sardiaz, hemen faten giñan banastiakin ta eskutxuakin, entendiuten dozu? Eta lau lagun fan ezkerre lauk launena itten daue baiña bakarrik bazoiaz bakarrik erakutsi bihar dozu lana eta fan nintzan sardiakin. Aitta begira. Aurreko egunian etara nittun danak eguadirako bazkaietterako danak akabota neukan sardaz, danak. "Mekauen, nuk ikusi dok hau hola sitsa botaten?", "Nun? Etxian egonda ez dira ikusten, Anduaiñera hola ta hola etorri giñen hamabost egunien eta baserritar jator bat, idixak be bai jatorrak eta han in gotsan pregunta batzuk eta aguro biaziaz atzera be ta "joe, azkar kargatzen dezu" ta "bai, bi seme sasoi ederrekuak hantxe dagoz kargatzeko ta", hain aguro geu ikaratuta eta gero ha nola ikusi neben eta hamen zerbait aurreraketan ez badogu, oin kuadrillia haundixa gaoz, baiña gutxiago jarten garienian eta zer? Pixka bat geuk etaraten ez badogu aurrera bidia?" Handik, e? Hasieria. Eta gero beste lan batzuk be gero formau zien: behixak kendu eta idixak, lanerako idixak dira ez behixak, onak izanda be behixak behixak dira, baiña idixak lanerako dozu bakarrik, handik ez dako zu txahalik ezta esnerik, ha kontua in bihar dozu lanerako, baiña lanerako idixa ona da idi ona bada, espeziela, idi onakin, idi pare onaz ugezaba pazientziakua bada, pazientziako ugezaba baldin bada, idixari irakutsiko xao berba itten ez, beste danak entendiuko (di)ttu idixak. Eta enjeneral idixari euskeraz bai, baiña erderaz idixak hobeto berak hartzen dau. Bai, bai, bai, erderaz, "vuelta atras", "vuelta", bittara ingo xatzu, baiña erderaz. Txakur konkurso baten ikusitta nago euskaldun pastoria txakurrari dana erderaz aginddu otsana, eta zerbaitteatik aginddu otsan. Ta hola, ba, idixa langille ona.

4. Afizio handiko gizona

- **Erref:** ONA-058/005
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Traktorea izan zen aurrerapen ikaragarria. Ganadu zaintzen ere asmatu behar izan zituen lana errezteko bideak. 300 ardi eta 20 ganadu ukuiluan izatera iritsi zen. Osasuna eta zaletasuna dira oinarritzkoak edozein lanetarako.

Transkripzioa

- Eta hola, ba, idixa langille ona, eta gero sortu zien tratoriak, fuera, dana adelantu gisa, tratoria idixak fuera ta tratoria. Esaten da idixak onak dia, baiña ez dago tratoria lako idirik. Horrek bota ezkerre gasoilla, bere alimentua, eta idixari jaten emutera goizian goiz jaiki bihar, ta bestiari jaikitten zarien momentuan bota ta "ya estoy listo, arranque! Brau, alante"! Ez da hori lako adelanto, gabitz adelantuen, adelantuen e? Eta, ba, bueno, gero umiak eskolia, zaharrak geruago zaharrago, andria ta bixok bata bestiarri lagun indda, ez oingo modara, e? Ta partiu ta hola porai nada, han baikotzak bera apoiautera fuerte, ta eukitta nago gehixen euki duanian ixa hirurehun bat ardi eta beste hoge bat ganau ittuan. Ta

bixok, e!

- Hirurehun ardi?

- Bai, 281 egon ziren gehixen euki nebena ha izan zan, eta beste hogei bat ganau ittuan. Eta umiak eskolan, ta zaharrak goizian amak kafesnia uhera edo, bueno, jaikitten zien gerotxuago ta hola behin edade batera aillegau zianian. Eta lehenago ganauak aurrerako ganaua barrixa etara bihar dozu umiak famelixan letxe barrixak sortu bihar daue, ta orduan eukitten zien behittarako zuk izten zebeñ behi txahal bat ixa urtia in arte ittuan, ta harek zuk jareten baxatzu amagaz bere esnia eran eta harek lanik ez du behintzet emuten. Hor be hor neu sartu nintzan hemen leheningo hemen hori itten, lana ebitaitiatik, e? Eta jare, hori txahal txikiña Manuelek behixakin txahal txikiña dabil, bi urruza zien eta ba, joiño, hau ta hau, bai, bi gauza ikusten txuat, neri lana gutxittu ta eurok bizitten ikasi, txikitik ikasi bihar dou, larran txikitik bizimodua itten, eurok ikasi eta gero hemen jentia danak saillian ekin zien jareten txikittik. Hori zan apur bat topaitten ruta bat nundik fan bihar dogun onduen. Hortik hasi giñan puxka bat, baiña lehen esan duana, jentia nehikua danian, ba, ez zara apuraitten, inddarra dago itxien, lana gogorra, baiña dominau itten da. Baiña geraketan bazara bi lagun, ni ardixakin, ardi kuadrilla bateaz honen etxien, neguen, e? Edur denporan Aratz Urrutin, eta hemen beste kuadrilla bat egoten zan, baiña horreik ya hainbeste kaso in barik, eta gero behi kuadrillia, bi ta bixok partiuta. Ta handik ni asko etorten nintzan gaberako, hona, ba, gaberako, ba, hau "en general" orduentxe ixa akabuan ganauari botaten, eta goizian ba arbixa edo leheningo bota neuk eta hara faten nintzan, han arduria dago ta hara. Tren hortan gogorra bizimodua eta ez neben gura semerik nere lekuan, leheningo bihar dozu fuertia izan osasunez, ez hotzak billurtu ta ez justuixak billurtu, hori bihar dozu. Eta gero, bestetik, bihar dozu printzipalena da afeziñua, estudiorako ona izango da hori, afeziñua eukittia, nik esango neuke lan danetarako afeziñua bihar dala, ta afeziñua ta gogua. Eta, bueno, ba, horreik ez xakun falta ta jaungoikuari eskerrak lutzau geben, ba, gerra baten moduen, gogorra bizimodua, gogorra, ta frente.

5. Artzain gaztea

- **Erref:** ONA-058/007
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>10 urterekin Arabako mendira joaten zen egunero ardiak jeztera, eguraldi ona edo txarra izan. Ekaitz gogorrarekin mendian galdu zen behin, baina lortu zuen artaldea aurkitu eta jeztea. Nekatuta sartu zen kamainan.</p>

6. Etxera esnearekin

- **Erref:** ONA-058/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Ekaitz gogor baten ostean, arreba joan zitzaion hurrengo goizean bila mendira, esnea etxera eramateko. Arreba ekaitzaren ondorioez izututa iritsi zen Manuelengana.</p>

7. Seme-alaben ordaina

- **Erref:** ONA-058/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Manuelek ahalegin guztiak egin izan ditu seme-alabak ondo hezi eta ikasketak emateko, eta orain seme-alabak arduratzen dira Manuel eta emazteaz.

Transkripzioa

- Zeatik lehenauko zaharrok, nik ez dakit zuek zeatik etorri zarien, baiña badauku gere merittuak, e? Mutikotako bizitza nolakua izan zan, gerotxuao nolakua izan dan, geruao nolakua izan dan, eta oin azkena lastimarik zahartuta, hemen dakogu alabia, errege letxe hartzen gau eta honek luzeketan dabilrelako urtiak, bestela fanda geontzen, fanda geontzen! Eta inddarra emuten, e? Hori gauza haundixa da, bueno, honek etorri eta itten dabena, hori ez da itten... hori e... Eta beste emekume batek be tratau eta itten badozu ingo dotsu, baiña alabia alabia izaten da.

- Aurretik zeuok ondo zainduko zenduen ta.

- Ahaleginddu in nintzan, egixa esango dotsut, e? Ni izan naiz gizon bat umiendako biguna.

- Emaztea: sei urtekin fan zan hau kalera eskolara.

- Alaba: sei urte, hamabira arte edo noiz arte egon nintzan kalia?

- Tianian, horren ahizpianian egon zan. Gu, egixa esango dotsut, ni ahaleginddu ez banaiz umiakatik beste asko ez da egongo ahaleginddu danik, zeatik ni gehixao eziñeraiño ahaleginddu naiz. Ta, esango dotsut, nik ikusten neben aiuda falta haundixa izango nebena, baiña ez nebela gura umerik ifintterik hemen. Hau esango noskio lehendakari, zeari, horreik haundixoiri danoiri esango nosteke, gu hola saiatu gara gere garaixan.

- Emaztea: semiairi esan zosten estudixaitteko gogua baldin badakuei eta ikusten badaue balixo dauela, 30 urte arte lagunduko ostela.

- Lehenao in euen ta.

- Emaztea: lehenao aspertu zien.

- Ba aspertu, eurak defenditteko ikusi euenian, kantsau itten dau estudixuak berak be, nik ez dot aprobau.

8. Erdara ezin ikasi

- **Erref:** ONA-058/010
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eskolan zazpi urterekin hasi zen. Erdara ez zuen ulertzen, baina matematiketan nahiko ondo konpontzen zen. Gasteizen egon zen erdara ikasten, sukalde batean lanean, baina sukaldean denak euskaldunak ziren. Soldadutzan ere euskaldunak suertatu zitzaizkion inguruan.</p>

9. Ondo jan eta gutxi gastatu

- **Erref:** ONA-058/012
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Orain hobeto bizi garela dio Manuelek. Baina dirua errazegi lortzen dela eta ez dela lehen bezala zaintzen. Jakiak lehen garbiagoak zirela dio, eta elikagarriagoak. Abereek ere hobeto jaten zuten lehen eta gaixotasun gutxiago izaten zituzten.

10. Gernetan jaioa

- **Erref:** ONA-058/016
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:51:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1922ko abuztuan jaio zen, baina ez daki ziur zein egunetan. Beharbada arreba eta bien urtebetetzea egun baten ospatzeagatik erregistratu zuten arrebaren egun berean. Bere aita ere Gernetakoa zen; ama, berriz, Errastikoatik etorri zen. Uxarte auzunea hustuz doa.

Transkripzioa

- Ze... beste ruta bat jarri, nundik tiratu bihar duan!
- Ondo, ondo diharduzu.
- Ondo dihardut?
- Bai, larogei urte esan dozu, ezta? Hogeita bikua orduan? "Veintidós"?
- "El cuarenta y tres".
- Baiña...
- Emaztea: Jaixo ziñan urtia izango da larogeita sei urte gutxiago... ba "veintidós" izango da.
- Ba "veintidósekua".
- Eta ze egunekua?
- "Once de agosto". Gero batzuk esaten daue "nueve de agostokua" naizela be, ez dakit. Orduan juzgaura jun bihar izaten zan, [...] bi egun gutxiago itten dot orduan, gaztiaua, bi egun gaztiaua.
- Alaba: Badakitzu zer? Beste arreba bat zaharrena eukan "once de agostuan" jaixua, arreba zaharrena, eta gero oin ez dakigu bederatzian jaixo zan; eta gurasuak bixok egun baten ittiatik 11 ifiñi euen juzgauan edo

zeatik ifiñi euen hori.

- Bai, bixok egun baten zelebauten geben, harek felizitauten ninddun behetik, ha kalia bizi zan eta bixok egun baten. Eta hau lehen be esan dot, examiña in bihar da hemen ondo juteko, igual aitta-amak ingo euen examiña, zelebraziñua be kosta itten da eta bixena batera indda gastu gutxiago. Horreik danok mixeritik estudiantzen dira, mixeritik, e? Bestela zu bazabitz dana errez, dana errez, handik ez dozu bururik kantsaitten, ez zara sartzen, baiña ikusten dozunian hemen aillegauten zariela, hemen "ojo al cristo", eta pentsau nundik fan edo zela fan. Eta holaxe.

- Zenbat anai-arreba ziñazien?

- Zazpi, zazpi giñan.

- Eta gurasuak bertakuak ziran?

- Bai, aitta hemengua semez, eta ama hor gertukua, elizatik goratxuago, baserri Errastikua, horkua ama. Amandria be, nere amana be, amandria be, elizatik goratxuago Borjena. Borjenekua, bai.

- Uxartetik etorritakuak zarai?

- Bai, ama Uxartekua, Errastikua, eta amandria be bai, amandria be Uxartekua, Borjena.

- Txomeena be Uxarte da oinddiok, ezta?

- Bai. Ba gastauaz doiaz, Aixkorbe ixa gastau da...

- Horixe esan dosku Mirenek, gauza iguala.

- Txomeena eta Garaikua, Uxabio, ba Euxebio kalia bizi zan eta hona etorri zan eta hor jarraiketan dau, anaia ta egon zanian, hil zan anaia, ha residentziara fan zan eta beori baserrixan jarri zan hor, ta...

- Errastikuan ez dau iñor?

- Errastikuan be ez, ama egon da denporaletxon baten uste dot, baiña oin uste dot kalera fanda egongo dala, Rikardo zanen andria.

- Karnetian urtebete gaztiagua zara!

- Bueno! Hori be zeozer da. Urtebete ume?

- Bai.

- Hori askotxo da.

- Alaba: 22 ifiñi biharrian 23 ifintten dau.

- Akaso holaxe izango da-ta.

- Alaba: Oin bi urte egindakua da. Oin bi urte edo inddakua da, itxuria konfusiñoren bat da.

- Registruan zela dauen hala ifiñiko daue.

- Numerua kanbixau daue.

- Aber urte bat gaztiagua zaran.

- Alaba: Ez, zeatik kartillan amak esaten dau 22 dakola.

11. Txabolak su hartu zuenekoa

- **Erref:** ONA-058/017
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:51:19. **Bukatu:** 00:56:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Etxean afaldu eta Deguriara joaten zen ardiak jeztera. Behin bera eta beste artzain lagun bat lotan zeudela, txabolak su hartu zuen. Lan askorekin

baina lortu zuten sua itzaltzea. Deguriako beste artzainekin elkarlanean berreraiki zuten erre zena.</p>

Transkripzioa

- Gero hemengo artzantzak guk hola etxabolatxo horreittan itten geben, baiña hemen Degurixa mendixan egonda zagozei? Han etxabola formalak egoten zien, ta horreik pastoriok ba Arretxabaletakuak, Mondrauekuak, eta Eskoriatzakuak eta danetik egon giñan. Gehixen egon giñanian hamaika artzain; hamar fijuak han eta nik ardixak jaitzi eta etxera etorten nintzan, esniakin. Ta hemen lana, e? Eta bestiak han jirauten zien, eta nik ez neuken etxabolarik, baiña nere lagun haundixen etxabolan, hau zerekuak, Zubillagako Erguiñakuak eta Urzabalguak egoten zian bi anae. Ta oin esango dotsuet ze tokau xakun. Hau entzun, ze tokau zan etxabola hartan, ba ni hemen lanaldi gogorra indda faten nintzan eta gero edadia be lo itteko ona, eta gabian faten nintzanian bera afalduta egoten zan eta nik etxian afaitten neben, nik ez neben han afari lanik hartzen ezertarako be. Goizian berak kafia beroketan eben, kafia hartzen geben bixok ta ardixak jaiztera ni eta gero ni etxera. Ba, gabian fan nintzan eta, ba, betiko moduen, oso gizon alertia zan, aittajun alertia, eta kontuak, ba, badakitzu, hemengo kontuak, behekuak eta gustau itten xakon, ze barri ete dan beharretako ze giro eta hola ta, etzin, ni etzintten nintzanian kontuak esaten gazela, ra, luak hartzen ninddun. Segidan, e? "Lo zagoz Manuel?" esaten eben berak. Hori entzun itten neben, ni lo nenguela hori entzuten notsan. Goizeko ordu bittan jaikitteko ordua eukan txixa ittera berak, ez euen despertadore biharrik, hori zan bere ordua. Jaiki ei da eta etxabolia erreten, sutan. Hango Manuel diarra, hango larrixa! Ikusi nebenian zerten, keia ya, keia etorren, hartu frakak eskun eta urten neben kanpora. Goixan euen sua, su lekutik hartuta etxabolan gora, ez neben frakarik, ontzixak eskatu notsan, deposittua bertan euen ta, frakarik ez neben nik jantzi, ez neben astirik euki frakarik jazteko, nik ura etara eta eruen eta berak bota, ura etara ta eruan ta bota, ura etara ta bota ta bota ta bota. Haizia, hegu-haizia, eta sua horrekin inddarrian fuerte ta errebentau geben, baiña itxungi geben. Gero, ba, goizala aillegau zan, baiña etzin in bihar apur bat ardixak jaizteko gauza izateko. Etzin giñan apur bat, ja(g)i giñan, gero pastoriak ardixak jaiztera urten ta "Aiba! Ze pasau da?" Etxabolia baltz goixa, goixa erreta eta ikusi naue ni be ardixak juntaittera, "Ba, Manuel ondo doia". Bestia be ikusi daue eta "Ze pasau da? Ze pasau dan?", "Gogorra! Eskerrak ordu bittan ordua eukenari jaikitteko bestela ni enterau barik erreta eta bera be bai. Horri kaso euki eta ya ez da pasau ezer, oin arreglauko dogu, jasoko dogu itxaboliori". Baiña danian erreta ni eta bera be bai, berak jaikitteko ordua aillegau ez balitz; sua zela etorren! Eta arnasarik hartu ezindda kanpora, frakak eskuan, ikusi be ez, laiñua itsu, keia, atian urten nebenian, bueno! Ontzixak, eta ontzixok segidan han zuzendu gittun eta nik ura eta bestiak bota, nik ura eta bestiak bota. Gero etxabola hori jaso in bihar zan, han jarraitu bihar eben ta ardixak jaitzi eta gaztaia itten. "Bueno -neuk esan notsan- gure koiñatuak uste dot teillia badaukola, sobrauta, eta neu enterauko naiz eta jasoko dogu teillia. Matromai lagun bialduko dostazu, mutil gaztia Matromaikua". Zuzendu nittun lau asto eta neuk astua ta zaldixa bi neukan, hiru zuzendu kanpokuak, bostekin. Bosteaz kargau ta arriba tellia, gero pastoriak danok bata bestiarri lagun in eta bigarren egunerako etxabolia lehen baiño dotoriago itxi geben ipiñitta.

- Auzolanian, e?

- Bai, bertan pastoriak eta geuk, eta ez zan pasau ezebe, baiña ez xat sekula ahaztuko ha. Makiña bat aldiz eskerrak emun notsan, "zugatik nago

ni munduen". Eta bai, gogorra izan zan Manuel. Gogorra? Gogorra baiño gogorragua zan ha. "Zugatik nago ni, zuk horixe ordu hori zeukan, bai, ordu bittan betik, e?" Txixa ittera ha berez, klaro, joten eben lomokoza ta, klaro, ni baiño zaharragua zan eta ni, ba, lan fuertietan ibillitta faten nintzan eta edadia ona neuken lana itteko, lo itteko, danerako, eta ni lotan jarten nintzanian goizian nere ordurarte ni ez nitzan iratzarten, ni nere orduan. Eta haren ordua zan ordu bittan, txixa ittera, ta haxe suertau zan eta hari eskerrak.

12. Lehen dena bekatu

- **Erref:** ONA-058/018
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:56:18. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Orduan Deguriako artzainak ardiekin bizi ziren hauek antzutzen ziren arte. Igandetan meza entzutera Araotzera jaisten ziren. Orduan dena zen bekatu eta orain ezer ez, Jaungoikoa lehengoa izango da, ba? Hausnarketa erlijioso bat egiten du Manuelek.

Transkripzioa

- Han esan dot hamaika pastore. Garai hartan, ba, pastore horreik itten euen baserrixan hementxe itten dan letxe babak eta janarixak ba igual han, ta gero antzuketan zienian etxera faten zian, eta hola zortzixan edo ardixairi bisitta bat ittera mendira, eta etxeko baserriko lanetan eurak ta hola. Eta gaztaia dana itten euena, mendixen itten euena handik gero faten zien aldiko apur bat behera eruen ta saltzen faten zien, ta mendiko gaztaiak betik dako bere famatxua, hemen beheko zelaittan baiño betik mendixen... Zenbat eta mendi fiñaua eta larra fiñaua ta esne hobia da, ta hortxe saiaketan zien. Juergarik ezebez. Mutillak zian nere kinttuak. Etorten zien mezia entzutera hona, meza nagusira. Ardixak jaitzi, gaztaia itteko igual ez zian aillegauten ta gero itteko itxitta, gatzeittuta edo itxi eta hona, tabernara pentsau be ez, mezia entzun eta arriba. 18 urte 17-18 urteko lau kinto neriak batera egon zien, ta arriba! Eta uda danian mendixan bizimodua, aber gaurko 17-hemezortzikuairi han, e? Etorri mezetara, mezia entzun ta hara. Aber, nun da oin lehenauko fedia eta oingua eta nun dia honeik? Ze pasauten da hemen? Aber, lehenao dana zan pekatu gu gaztiak giñanian. Hau esango dot baitta ehun erlijioso onduen baleoz be, danak entzuteko moduen. Dana zan pekatu, ta oin ixa ezebe ez da pekatu. Ze pasauten da? Jaungoikua lehengua egongo da, ba? Aber! Nire ustez.

- Jaungoikuak berak be igual eboluzionau ingo eben.

- Ba ni horrekin egoten naiz, ha lehenaukua ezin xeikien, ha lehenaukua nik kontuak itten, hau ez dok hola. Ni hola iñoiz ardittara fan eta, ardittara fandakuan ezin zeike neurtu holako ordutarako etorriko naiz, trenera fan bihar dozun edo autubus batera fan bihar dozun moduen, ezta hori! Mendixen lan ona ondo in gura badozu saiatu in bihar dozu, eta gero mezetarako bidian harrapoka etorri eta berandu in igual. Amak lehenengo dalako bronka eta beonek be bai. Ni nere buruari, e? Gura badozue sinistu eta gura badozue ez. Jaungoikua esaten daue alde danian dauela, "ikusi dozu nik mendixen in nittuanak? Ikusi dozu nola etorri naizen? Ikusi dozu hamen bronkia eta andriena?" Jaungoikuari, e? Direktamente. Aber,

zeiñena da hemen arrazoia? Harek ez eben ezer esan, harek ikusi ninddun, ba ikusten ba(di)ttu danak, mendixen ikusi ninddun ni zela ibilli nintzan, zela etorri nintzan, gero zelako bronkia hartu neben. Aber, berba itteko balitzake segidan esango eben: "Ez, geldi itxi semiari, hori ahaleginddu da danak, horri ez eskatu gehixao". Baiña ez, ha ixilik egon zan, ta, ba, honeik eurena eta ni neriaz. Eta nik esan neben, nik esan neben, neure buruari esan notsan: "Nik in (di)ttuan lanak mendixen lana ondo itten, ni etorri nintzan moduen etorri, hau pekatua bada ez xaok ez zerurik eta ez infernurik". Neuk nere buruari, e? "Hau pekatua baldin bada, ni ibilli naizen moduen ibillitta, mezia utzi in duala eta, hau pekatua baldin bada, ez zerurik eta ez infernurik ez xaok". Zeatik ni seguru nenguen jaungoikuak, esan dot lehen be eta esango dot berriz be, saiatu in bihar zara duro bat etarateko, ez taillerretik sobria etorriko da, ez euen orduan holakorik, orduan saiatu in bihar zan. Ezta ba mezetara fatia, ondo da, mezetara fatia oso ondo da, neu ez naiz kontra, baiña ezin dozunien ezin dozu. Honbre, hori esaten dot, ta horreik mutiko gizajuok be mutil gaztetxuak etorri eta Degurixara, sikiera tabernara fan ta saldatxo bat hartu, ezta hori be, arriba.

- Baiña mezetara etorri in bihar.

13. Bekatu erdia

- **Erref:** ONA-058/019
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Artzain lagun bat San Bernardora konfesatzera joan zenekoa azaltzen du. Hausnarketak jarraitzen du bekatuak erdira jaitsi arte.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com